

Modèle CCYC : ©DNE

Nom de famille (naissance) :


(Suivi s'il y a lieu, du nom d'usage)

Prénom(s) :

N° candidat :  N° d'inscription :

(Les numéros figurent sur la convocation.)

Né(e) le :  /  /

 Liberté • Égalité • Fraternité  
RÉPUBLIQUE FRANÇAISE

1.1

## Évaluation Commune

**CLASSE** : Première

**VOIE** :  Générale  Technologique  Toutes voies (LV)

**ENSEIGNEMENT** : Basque

**DURÉE DE L'ÉPREUVE** : 1h30

Niveaux visés (LV) : LVA **B1-B2** LVB **A2-B1**

Axes de programme : **Axe 2 « Espace privé et espace public »**

**CALCULATRICE AUTORISÉE** :  Oui  Non

**DICTIONNAIRE AUTORISÉ** :  Oui  Non

Ce sujet contient des parties à rendre par le candidat avec sa copie. De ce fait, il ne peut être dupliqué et doit être imprimé pour chaque candidat afin d'assurer ensuite sa bonne numérisation.

Ce sujet intègre des éléments en couleur. S'il est choisi par l'équipe pédagogique, il est nécessaire que chaque élève dispose d'une impression en couleur.

Ce sujet contient des pièces jointes de type audio ou vidéo qu'il faudra télécharger et jouer le jour de l'épreuve.

**Nombre total de pages** : 5

# Baccalauréat général et technologique

## Basque

### Classe de première

#### Epreuve 2 : Compréhension de l'écrit et expression écrite (3<sup>e</sup> trimestre)

<b><u>Niveau visé</u></b> LVB : A2-B1	<b><u>Durée de l'épreuve</u></b> 1 h 30	<b><u>Barème 20 points</u></b> CE : 10 points EE : 10 points
--	--	--

L'ensemble du sujet porte sur l'axe 2 du programme « **Espace privé et espace public** ».

Il s'organise en deux parties :

- 1- **Compréhension de l'écrit**
- 2- **Expression écrite**

#### **1-Compréhension de l'écrit (10 points)**

Titre du document 1: Emakume jaio nintzen.

Titre du document 2 : Emakumeak eta kirola.

Ondoko galderei euskaraz erantzun.

a- Zer egin nahi luke gazteak hastapen batean ? Zer erantzuten diote ?

b- « *kirolaz bizi nahi dut aita.  
Lan hau da gizonentzat alaba  
aukera ezazu neskaren lana.* »

-Zer ulertzen dugu ?

-Bigarren idazkian, honi lotu daitekeen adierazpen bat aurki eta altxa ezazu.

c- Idazlearen iritziz, zerk egiten du gizon batzuek ez dutela onartzen emazteek gauza berak egin ahal ditzaten, adibidez kirolean ?

Emakume jaio nintzen.

Emakume jaio nintzen lehen  
karrera bat estudiantu nahi nuen.  
Estudiantu ? Hobe duzu ahaztu  
senarra hartu eta ondo zaindu.

Denbora pasa ta neska bat izanda  
ikastea du zale.  
Laurogeian jaio naiz eta  
kirolaz bizi nahi dut aita.  
Lan hau da gizonentzat alaba  
aukera ezazu neskaren lana.

Denborak aurrera ta eskubideak  
ez dira berdin aurreratzen.  
Zenbat aldiz entzun dugu hemen  
gure eskubideak aurrez etengabe,  
hala ere zapalduta gaude,  
honekin bukatu behar da lehenbailehen.

Maixa eta Itziar (« Gure zarata » diskoa, 1993)

Emakumeak eta kirola.

Duela aste batzuk, kirolgune bateko aldagela batean, bi gizon eztabaidan aritu ziren artikulu honi izenburua ematen dion epigrafe<sup>1</sup> horren inguruan. Nik, isilean, hitzez hitz jarraitu nuen eztabaida, eta, interesgarria aurkitu nuen nonbait. Bitako batek<sup>2</sup> argudiatzen zuen kirol guztiak ez zirela emakumeentzako aproposak. Naturalki ez zeudela prestatuak fisikoki asko exijitzen duten hainbat kiroletarako. Adibide bezala, eskupilota ipintzen zuen honek. Emakumearen eskuak ez baitu, bere ustez, pilota horiei erresistentzia egiteko sendotasunik. Besteak, haserre, gogor erantzun zion esanez argudiatzen zuen zekenkeria<sup>3</sup> guzti hori, gizarteak buruan sartu dion emakume ideiarene ondorio besterik ez zela, eta, emakumeak, beren mailan bada ere, gizonen lez<sup>4</sup>, edozein kirol egiteko gai zirela. Eztabaida ez zen bertan gelditu, eta lehenengo subjektuak bigarrenari erantzun zion esanez baietz, beregatik emakumeek kirola egin zezaketela, baina berari kirola egiten zuten emakumeak ez zitzaizkiola erakargarriak<sup>5</sup> egiten. Gelditzen zaien gorputza ez zitzaiola ikuspuntu sexualetik gustukoa egiten. Azken argudio honen ondoren, eztabaida, gutxi gora behera, itxiztat eman zen, azken baieztapen honek eztabaidaren hasierako funtsa zertxobait desbideratzen zuelako. Gainera, aldagela hartan nireak bukatu nituen eta alde egin nuen, bi subjektuak han utzita. Ez dakit eztabaidak jarraituko ote zuen. Gauzak horrela, zer esan honi buruz. Nik behintzat ez dut uste inork esan dezakeenik emakumeak ez direla gai kirol bat edo beste egiteko. Buru bat, bi beso, bi esku, bi hanka eta bi oin dituzte, gizonak bezalaxe. Beraz, hasteko, planteamendu hori, gizartearen estigma baino, erridikulua iruditzen zait. Hala ere, gauzei zergatia aurkitzea nire erronketako bat izaten da beti, eta lehendabiziko subjektu horren argudioen azpian, ezkuturik, matxismo seinale nabarmen eta, seguruenik,

inkontzientea aurkitzen dut. Ustez gizonek abantaila daramaten hainbat esparrutan<sup>6</sup> gaintik gelditzeko behar kontrolaezin eta irrazional hori, alegia. Ez dut beste esplikaziorik topatzen.

Xabier Ortiz de Urbina. 2013-05-18, Zuzeu.eus

Hiztegia :

epigrafe<sup>1</sup> : inscription

bitako batek<sup>2</sup> : bietatik batek (un des deux)

zekenkeria<sup>3</sup> : la mesquinerie

gizonen lez<sup>4</sup> : gizonek bezala

erakargarriak<sup>5</sup> : attirantes

esparrutan<sup>6</sup> : alorretan, arlotan.

## **2-Expression écrite (10 points)**

Ondoko bi gaietarik **bat** garatuko duzu euskaraz, 12 bat lerrotan.

### **Sujet A**

Lehen zatian aita eta alabaren artean izan den elkarrizketa asmatuko duzu. Bata eta bestearen argudioak adieraziko dituzu.

**Sujet B** Behobia-Donosti lasterkaldia



Zer lotura egin dezakezu idatzien mezua eta argazki honek erakusten digunaren artean ?